



IKASTOLAKO UDALEKUAK

ZUHATZAN LH3TIK DBH4RA

Lehen Hezkuntzako 3. mailatik DBHko 4. mailara arteko ikasleentzako udalekua Zuhatza irlan burutuko dugu ekainaren 24tik 28ra. Berton izena emateko epea maiatzaren 5era arte izango dugu zabalik.

Egonaldiak 230 euroko kuota izango du eta ordainketa kuota bakarrean (maiatzeko erreziboan) edo bitan banatuta (maiatza eta ekaineko erreziboetan) burutu ahal izango da.

IZEN EMATEA

Toki kopuru mugatua izango dugunez gero, izen emate datak ezarriko du erreserba ordena. Horretarako izena emateko formularioa bete beharko da eta, behin egonaldia baieztatuta, ondorengo dokumentazioa Idazkaritzara ekarri edo eke@laudioikastola.eus posta elektronikora bidali:

*Gizarte Segurantzaren txartelaren fotokopia.
Alergia edo bestelako mediku oharren txostena.
DBHkoek irudi baimena.*



BAJA IRIZPIDEAK

Maiatzaren 12a baino lehenago jakinarazitako bajek ez dute ezer ordainduko.

Data honetatik aurrera ondorengo baja irizpideak aplikatuko dira:

%90a itzuliko da ondorengo kasuetan, beti ere agiri baten bidez frogatuta:

- Gaixotasun edo istripua; medikuaren frogagiria behar da.

- Behar den txandara joatea eragozten duen ustekabeko edo beharrizan larria (justifikatuta).

Aurreko arrazoiengatik ez bada, kuotaren %80a ordaindu beharko da baja ematean.

Behin udalekuak hasita, ez da dirurik itzuliko.

izena eman 